



LABen erantzuna Nafarroako 0-3 Plataformari: gauzatu dezagun Nafarroako haur hezkuntzako lehen hitzarmena

LAB sindikatuak, klase ikuspegitik, izaera borrokalaritzatik eta publikoaren defendatzailea den aldetik, Nafarroako 0-3 Plataformak zabalduko dokumentuari

borondate bateratzailez erantzun nahi dio, baina bere motibazioen irmotasunari eta argitasunari uko egin gabe.

Lehenik eta behin, Nafarroako haur eskoletako langileen borroka aitortu eta baloratzen dugu LAB sindikatua ere horren parte baita. Borroka horien ondorioz, 2022ko greba mugagabea barne, aurrerapen garrantzitsuak lortu dira. Baina horregatik hain zuzen ere, LABek ezin du onartu Nafarroako hitzarmen propio bati atea ixten saiatzea, eta are gutxiago, bere esperientziatik defendaezinak diren argudio batzuk erabiliz.

1. Hitzarmen propio batek ez du pribatizazioa betiketzen, aitzitik, bidea irekitzen dio publikazioari Plataformaren dokumentuak dio Nafarroako hitzarmen batek “pribatizatutako kudeaketa ereduaren aurrean amore ematea ekarriko lukeela” eta “hain desiratua den kudeaketa zuzenerako oztopo” izango litzatekeela. Baina errealitatea bestelakoa da. Zahar egoitzetan, anbulantzietan, ezgaitasun sektorean edo kirol insta-

lakuntzetan izandako esperientziek erakusten digute hitzarmen kolektibo duin bat ez dela galga izan, publikazioa exijitzeko bitarteko baizik. Izan ere, Nafarroako Gobernuak berak eskatutako kanpo-txostenek desgaitasun-sektorea publikatzea gomendatzen dute, hain zuzen ere, hitzarmen propioa izan ondoren. Hitzarmen bat ez da amore ematea, klase konkista bat da.

2. Nafarroako langileak ez gara pribilegiatuak hemen borrokatzeagatik

Nafarroako langileon bizi eta lan baldintzak hemen erabakitze eskubidea alde batera utzi ezin dugun aldarrikapen historikoa da. Ez digu inork inposatuko gure lurraldean kolektiboki negoziatzeko gaitasuna ukatuko duen ikuspegi unionista eta espainiarra. Are gehiago Estatuarekin parekatzeak hemengo lan baldintzak okertuko baditu. Zahar egoitzetako langileek —hauek ere jasaten dituzte prekarietatea eta muturreko pribatizazioaren ondorioak— ez zioten beren hitzarmenari uko egin. Alderantziz, sei urteko borrokaren ondoren lortu berri dute, eta gaur egun milaka langileren baldintzak hobetzen ari dira. Pozez eta merezimenduz ospatzen ari dira orain. Gomendatuko al genieke horri uko egin eta erabateko publikazioari itxaroteko? Ez, argi eta garbi, ez. Bidegabea eta onartezina litzateke.

3. Sektorearen egiturazko gabeziak ez dira konpontzen hitzarmen bati uko eginez

Sektorearen egiturazko gabeziak ez dira hitzarmenaren aurkako argudio bat. Alderantziz, administrazio publikoei beren erantzukizunak betearaziko dizkien erregulazio bat sortzearen aldeko arrazoia dira. Nafarroako hitzarmen propio batek gutxieneko soldata taulak eta bete beharreko lan baldintzak ezarriko lituzke. Are gehiago, publikazio baten aurrean, gutxieneko baldintzak blindatuko lituzke subrogazioan, hitzarmen propiorik gabe, ordea, langileak estatuko hitzarmeneko baldintzekin subrogatuak izango liriateke.

Nafarroako zahar egoitzetako Lehen Hitzarmenak, esate baterako, 1.500 euroko gutxieneko soldata ezartzea lortu du, azken Greba Orokorrean erreklamatu genuena. Tresna hau baztertzeak langileak beren lan baldintzen hobekuntzari uko egitera kondenatzea dakar, eta horrek ez du inongo logikarik, ez sindikalki ez klase

ikuspegitik.

4. Korporatibismoak eta interes partikularrek ezin dute borroka sindikala isilarazi

Plataformak, ikuspegi partikular eta korporatibo argia erakutsiz, mezu antisindikalak zabaltzen ditu, langileak elkarren aurka jartzeko asmoz. Kasu honetan, gainera, bada berezitasun bat: plataformako kide batzuk patronal gisa eratu daitezke hitzarmena negoziatzen hasteko. Hori arrakastaz egin zen Nafarroako Esku-hartze Sozialeko Lehen Hitzarmenean, eta 2.000 langile baino gehiagoren baldintzak nabarmen hobetu ziren. Baina kasu honetan, hori egin lezaketenek, uko egiten diote. LABek ez du gelditze hau onartuko. Klaseko ekintza sindikalak bizi- eta lan-baldintzak hemen eta orain hobetzea eskatzen du, ez publikazioa bezalako helburu estrategiko komunekin bateragarriak diren lorpenei uko egitea. Hitzarmen batek lan-arloa soilik arautzen duela eta ez duela hezkuntza-kalitatean eraginik gezurra da: ratioak, lan-kargak, hezitzaile-bikotea eta irakasle izae-raren onarpena ere negoziazio kolektiboaren baitako gaiak dira. LABek betidanik defendatu izan du zerbitzu publiko onak, langileak zaintzen badira soilik egon daitezkeela.

LABek sektorearen erabateko publikazioa nahi du, eta baita erresidentzia, anbulantzia, ezgaitasuna, kirol instalazioak eta beste hainbat sektorerena ere. Horren eta lan baldintza duinen alde borrokatzen dugu egunero. Ez diogu zuzeneko kudeaketari uko egiten. Horra iritsi nahi dugu eta horren alde borrokan jarraituko dugu. Baina hori iristen den bitartean ez ditugu langileak baliabiderik gabe utziko. Bi borroka hauek ez dira bateraezinak izan beste kolektibo edo sektoretan. Zergatik oraingoan bai? Zahar egoitzetako langileek erakutsi dute borroka egin daitezkeela, hitzarmen propioa lortu eta publikazioa eskatzen jarraitu. Bada, 0-3ko zikloan ere gauza bera egingo du LABek.

**Nafarroako Haur Hezkuntzako
lehen hitzarmen kolektiboa, orain!
Sektorea erabat publikatzearen alde,
baina inor atzean utzi gabe.
Nafarroako langileok erabaki,
borrokatu eta eskubideak irabazten ditugu.**